


## euskararen bidez etorkinak herrian integratzeko giltza



Haur eta gazte etorkinak euskara ikasi eta gure herriko ohituretara integratzeko etorkiZUn programa berria abian jarri du Udalak, Euskara Patronatuaren, Gizartekintza sailaren eta herriko ikastetxeen elkarlanean oinarrituta.

Etorkin eta etorkizun arteko "hitz jokoa" oinarri hartuta martxan den ekinbide honek "kanpotik Azpeitira datozen etorkinak eta euskara Azpeitiko etorkizunarekin uztartzea du helburu", azaldu du aurkezpen ekitaldian Ana Mendizabal Udaleko euskara batzordeburuak.



### Atzerritarren kopurua hazten

Azpeitiko biztanlerian etorkinen kopurua modu esanguratsuan hazten doala azaldu du Edurne Zubia Udaleko Gizartekintzako teknikariak. Azpeitiak, egun 14.023 biztanle ditu eta horietatik atzerritarrak 462 dira, herritarren %3,3. Urola bailaran ia etorkinei buruz egindako ikerketa baten arabera Azpeitian zegoen kanpotar gutxien: %2,75. Azkenengo urtebetean, ordea, %0,55 atzerritar gehiago etorri dira herrira. "Aurten, esaterako, irailean bitartean 106 etorkin hartu ditugu Gizartekintzako bulegoetan; irailean, bakarrik, 14 hartu ditugu", gaineratu du Zubiak. Hori dela eta, Udalak beharrezkotzat jotzen ditu Etorkizun eta Aisa gisako programak.

Euskaltegiaren bitartez AISA ikastaroa jarri zuen martxan atzerritarrentzat. Orain, berriz, Gizartekintza Sailak lan munduan gizarteratzeko ikastaroak antolatzen ditu. Auzolan ikastaroan, margoketa eta erakuntzen mantenimendua, zortzi lagunek parte hartu dute, eta horietatik 3 atzerritarrak dira. Merkataritza ikastaroan, berriz, zortzi lagunek hartu dute parte, eta sei dira atzerritarrak. Urte bukaeran beste bi ikastaro jarri nahi dituzte abian.

### Ikastetxeetan esperientzia positiboa

Eskoletako ordezkariak bat datoz esatean ekimena "eraginkorra, positiboa eta garrantzitsua" ari dela izaten.

### Haur eta gazteentzako bi maila

EtorkiZUn programa 18 urte arteko haur eta gazteei zuzenduta dago, eta bi lan esparru ditu: bata, ikastetxeetan 4-12 urte arteko umeekin egiten dena, eta bestea 12-18 urte arteko gazteekin Zapo Txoko gaztelekuetan burutzen dena.

Eskoletako jardunari dagokionean Azpeitiko hiru ikastetxe hartu dute parte, guztira 62 haur eta gazte. Iraurgin eta Karmelo Etxegarain hiruna talde osatu dira, Ikasberri, aldiz, bakarra. Eskoletan astero ordubeteko bi saio izango dituzte, 14:00etatik 15:00etara. "Taldea bakoitzaren mailara eta beharretara egokitutako saio dinamikoak, atseginak eta ludikoak dira", esan du Aitziber Bilbao EtorkiZUn programaren koordinatzaileak.

12-18 urte artekoak, berriz, Zapo Txokon ari dira EtorkiZUn ekimena lantzen. "Momentuz, zortzi pertsona ari dira parte hartzen eta antzerki tailer bat jarri dugu abian euskarazko saioekin tartekatuz", dio Bilbaok.

Nolanahi ere, ikasturtea hasi besterik ez da egin, eta ikasturteak aurrera egin ahala jaur berrien etorrerarekin etorkinen kopuruak gora egingo duela aurreikusten da.

### Helduentzat ikastaroak

Etorkizun ez da etorkinei euskara ikasteko antolatuta den programa bakarra. Azpeitiko Euskara Patronatuak lehendik ere baditu gisa honetako ekinbideak. Orain bi urte Udala

**"EtorkiZUn programak kanpotik Azpeitira datozen etorkinak eta euskara Azpeitiko etorkizunarekin uztartzea du helburu".**

**"Guztira 70 haur eta gazte etorkin ari dira parte hartzen etorkizun programa honetan. Talde bakoitzaren mailara eta beharretara egokitutako saio dinamikoak, atseginak eta ludikoak dira".**

**"Ikasturteak aurrera egin ahala haur berrien etorrerarekin etorkinen kopuruak gora egingo duela aurreikusten da".**

**"Planteamendua errazago aplikatzen da txikienetan; DBHkoei kostatu egiten zaie eskola orduz gain ikasteari aparteko denbora ematea".**



#### Miren Lazkano Ikasberri Ikastola

"Euskara Patronatuak proiektua abian jarri zenetik, hasieratik, daude gurekin harremanetan: datuak bildu, bilerak egin... eta horrek asko errazten du gure lana, bestela, gure gain egongo baitzen zama guztia. Garrantzitsua eta

beharrezkoa da programa hau, aurrerapausoa eman dela iruditzen zaigu. Umeei ikastolan eskola ordu asko sartzen dituzte, beraia ez den hizkuntzan, eta berriro ere eskolara joan beharrek esfortzu handia eskatzen du. Hala ere, 14:00etatik 15:00etarako denbora tartea hori ordu ludikoa da: beraiek parte hartzeko ariketak jolasen bidez burutzen baitira".



#### Esther Arruti Karmelo Etxegarai Ikastola

"Gu ere bat gatoz Miren Lazkanok esan duenarekin, proiektua ongi-etorria izan da. Guk ia zoko mailatan eta ekainean metodologia egokia zen ikus-terekin egin zen esperientzia pilotuan hartu genuen parte. Hasiera

batean, zalantzak izan genituen txikienekin, haur hezkuntzakoekin, ordu asko zirelako. Esperientzia baikorra izan zen oso; aurten, beraz, LHkoei gain HHkoak ere parte hartzen ari dira. Aspektu ludikoa du eta ia zoko denek jarraitzen dute aurten ere."



#### Joxe Mari Arruabarrena Iraurgi Ikastetxea

"Hala da. Nolanahi ere, planteamendua errazago aplikatzen da txikienetan, DBHkoei programaren berri eman diegu, baina, eskola orduz gain ikasteari aparteko denbora eskaini beharra...kostatu egiten zaie. Gainera, ikasturteak

aurrera egin ahala aldaketak egongo dira programan parte hartzen ari diren etorkinen kopuruetan: alde batetik, haur berriak etorriko direlako, baina, bestetik, atzerritar asko egonkorak ez direlako. Orohar, Hegoameriketatik datorren familia bat egonkorragoa da Marokotik datorrena baino".



#### Miren Arzallus Urola Ikastola

"Etorkinen ama-hizkuntzak ere zerikusi handia dauka. Adibidez, Marokoar batek eskolako gainontzeko lagunekin komunikatu nahi badu euskara ikasiko du. Alabaina, ama-hizkuntza gaztelera duen hegoamerikar

batek, komunikatzeko hizkuntza tresna edukita, euskara ikasteko esfortzu hori ez du derrigorrezkoa".